# VACACIONES EN PAZ

## ESTE VERANO ACOGE A UN NIÑO O NIÑA SAHARAUI

Getxo bizi ezazu
#GetxoBiziEzazu
Ejemplar gratuito
NÚMERO ESPECIAL
www.getxo.eus
getxoberri@getxo.eus
ABRIL 2016



Un año más, vendrán niños y niñas saharauis a Getxo a pasar el verano. Nuestro objetivo es, además de promocionar la solidaridad con el pueblo saharaui, sacar a estos niños del desierto durante esa época del año. Entre los meses de julio y agosto les daremos la oportunidad de conocer una cultura diferente, otras formas de vida, mejoraremos su alimentación e intentaremos solucionar sus problemas de salud. Necesitamos familias getxotarras que les acojan en sus casas.

**Getxo Pro Sahara ATFAL**
Atfal se constituyó en 1997 como asociación de ayuda al pueblo saharaui en Getxo. A lo largo del año se organizan múltiples actividades para dar a conocer los problemas del pueblo saharaui, siendo una de las más importantes la acogida de menores en verano. Mediante un convenio, el Ayuntamiento y la asociación colaboran en este programa de acogida. Son niños y niñas de entre 10 y 12 años de edad.

**Objetivos del programa**

- Cubrir las necesidades básicas de los menores saharauis durante estos meses.
- Posibilitar un reconocimiento médico, oftalmológico y dental.
- Evitar que sufran la dureza climatológica de la zona, que llega a alcanzar 55º C.
- Intercambiar culturas.
- Sensibilizar a la ciudadanía getxotarra de la situación en la que se encuentra el pueblo saharaui.

**Características**

- Los niños y niñas saharauis se integran en las familias, adaptándose de forma progresiva a su forma de vida.
- Se organizan una serie de actividades a lo largo del verano: excursiones, montar a caballo, día del Sahara con comida popular en las fiestas de Algorta, etc. En dichas actividades pueden tomar parte tanto los niños saharauis como sus familias acogedoras.
- Se organizan encuentros periódicos para que las familias acudan de forma voluntaria y puedan cambiar impresiones tanto con la asociación como con el resto de familias.
- Se dispone de una persona monitora para que las familias puedan recurrir ante cualquier incidencia.
- A los niños saharauis y a las familias acogedoras que no sean socias de Getxo Kirolak se les facilitará un carné durante los meses de acogida para el uso de las instalaciones.

**CONTACTO**

- Getxo Pro Sahara Atfal. 658.751.359 / atfalgetxo@gmail.com
- Ayuntamiento de Getxo. Cooperación. 94.466.00.17 / lankidetza@getxo.eus

## DESCRIPCIÓN

El Sahara Occidental es un territorio no autónomo con una extensión de 266.000 km$^2$ (casi la mitad de la península ibérica). Está situado en el norte de África, limitando con el Océano Atlántico, Marruecos, Mauritania y Argelia.

El clima es mayoritariamente desértico con una parte *erg* (arenosa) y otra *hamada* (pedregosa). Es un territorio que cuenta con importantes recursos naturales como minas de fosfatos y otros minerales, y con una de las mayores reservas pesqueras del mundo.
Desde el siglo IX hasta la actualidad la zona ha estado habitada por el pueblo saharaui, nómadas que descienden de esclavos africanos, beduinos árabes y bereberes. En su mayoría practican el Islam (sunita) y hablan *hassania* (un dialecto del árabe) pero también francés y castellano, herencia de la presencia colonial de estos países.

## HISTORIA

| | |
|---|---|
| 1886 | España comienza un proceso de colonización de la región. |
| 1934 | España controla el territorio entre Saguia al-Hamra y Río de Oro. |
| 1958 | El Sahara Occidental es considerada una provincia más del Estado español y se otorga DNI a sus habitantes. |
| 1960 | Naciones Unidas incluye el Sahara Occidental en la lista de territorios no autónomos iniciando el proceso de descolonización. |
| 1967 | Naciones Unidas recomienda la descolonización del territorio. |
| 1973 | Nace el Frente Polisario, movimiento de liberación nacional saharaui. |
| 1974 | El régimen franquista anuncia la celebración de un referéndum de autodeterminación. |
| 1975 | El Tribunal Internacional de Justicia (ONU) no encuentra lazos entre el Sahara Occidental y Marruecos o Mauritania. |
| | Marruecos inicia la ocupación militar y lanzó la «Marcha Verde» (llamada *marcha negra* por los saharauis) con la que cerca de 300.000 marroquíes cruzaron la frontera. |
| | Muchos saharauis llegan hasta Argelia donde se instalaron en campamentos de refugiados (Tindouf) huyendo entre el miedo, las desapariciones forzadas y los bombardeos. |
| | Mauritania ocupa la parte Sur del Sahara Occidental. |
| 1976 | España abandona el Sahara Occidental firmando los llamados acuerdos tripartitos. Acuerdos a los que instancias internacionales no dan validez legal, por los cuáles cedía el territorio a Marruecos y Mauritania, desentendiéndose de sus obligaciones y abandonando al pueblo saharaui. |
| 1979 | Mauritania se retira de la guerra y firma la paz con el Frente Polisario. |
| 1982 | LA RASD es admitida en la Organización para la Unidad Africana (OUA). |
| 1987 | Marruecos construye un muro de más de 2.500 Km. que divide en dos el territorio. |
| 1991 | Acuerdo de Alto el Fuego entre Marruecos y el Polisario que incluía una misión de Naciones Unidas (MINURSO) que tenía la tarea de llevar a cabo un referéndum de autodeterminación para decidir el estatus del territorio. |
| 1992/ 1999/ 2000/ 2003 | Resoluciones de Naciones Unidas abogan por la realización del referéndum y respetar la voluntad de la población saharaui. Se suceden iniciativas (nuevos censos, planes Baker I y II, Ross…) para tratar de desbloquear la situación con nuevos acuerdos; todos ellos son rechazados por Marruecos. |
| 2005/ 2010 | Se produce un importante movimiento de protestas pacíficas saharauis que son brutalmente reprimidas, y sirven de inspiración para acontecimientos como la «Primavera árabe». Es especialmente reseñable la protesta de Gdem Izik. |
| 2015 | Inundaciones en los campamentos de Refugiados de Tindouf que ocasionan numerosos daños: 90.000 personas afectadas, 25.000 de los cuales han perdido sus hogares y se han quedado sin alimentos. |
| 2016 | 40 aniversario de la declaración del República Árabe Saharaui Democrática. |

## ENTREVISTA



### Mireia Moral, madre de acogida durante siete años:

# "Es una gran satisfacción ayudar a personas que viven una situación injusta"

**Mireia Moral, tras una experiencia de cooperante en Perú, oyó hablar con 23 años de la realidad saharaui y de la existencia de la asociación ATFAL y decidió participar en el programa de acogida de menores, con el objetivo de colaborar con el pueblo saharaui. Durante los primeros años el niño acogido vivió en la casa con su familia (también volcada con la acogida) y durante los últimos años en el domicilio que comparte con su pareja. Matfud comenzó a venir a Getxo con siete años y continuó haciéndolo durante varios veranos más.**

**¿Teníais hijos o hijas de la edad en el entorno cercano?**
No, pero no es importante porque teníamos claro que había que hacer planes infantiles y en eso ayuda mucho la asociación con las actividades que organiza para todos los saharauis, y los niños y niñas getxotarras que quieren compartirlas.

**¿En qué situación se encuentran cuando vienen a Getxo?**
Son niñas y niños sanos. Cuando llegan se les hacen controles médicos, gracias a unos acuerdos existentes con Osakidetza, por si necesitan algún tipo de ayuda.

**¿Cómo es el día a día?**
El mío en su primer año no sabía castellano, no había visto el agua corriente ni muchas cosas básicas para nosotros. La asociación ATFAL fue clave porque organiza muchas actividades con monitores, algunos saharauis, lo que es muy importante para los niños que vienen por primera vez. Las actividades son libres y gratuitas (gracias a acuerdos y colaboraciones con entidades variadas) tanto para las y los saharauis como para los niños de las familias getxotarras. Además se hacen planes muy diferentes con las otras familias, como ir a la piscina de Fadura, al monte, a hacer surf...

**¿Qué ha sido lo más difícil durante estos siete años de acogida?**
Son niños y niñas muy educados. Igual lo más complicado a la vez que lo más bonito fue el primer verano, porque yo quería que estuviera bien y al no conocer el idioma, no sabía al 100% lo que entendía y lo que sentía. Nos arreglábamos con signos y fue fundamental la ayuda del monitor saharaui.

**¿Y lo mejor de estos siete años?**
La satisfacción de saber que estás ayudando a una familia. Ayudas al niño aquí, pero a la familia también porque sabe que su hijo o hija va a poder pasar dos meses alejado de las duras condiciones de los campamentos de personas refugiadas, en el desierto. Para mi ha sido muy satisfactorio ver a un niño feliz.

**¿Cómo es la relación?**
Se crean vínculos muy fuertes pero tenemos que tener claro que ayudamos a una causa y que si al año siguiente viene otro niño no pasa nada. En mi caso siempre ha venido el mismo, hasta los 14 años, por una situación familiar especial de él. Al principio sólo iba a acoger un año, pero fue tal la satisfacción que al año siguiente no lo dudé. Me preguntan si no me da pena. Por supuesto que da, pero tenemos que tener claro que es mayor la satisfacción por ayudarle que la pena por no verle posteriormente. ¡Claro que me dio pena cada vez que me despedía de él!, pero él tiene su familia. Yo tenía claro que era una madre de acogida que ayudaba durante dos meses a mejorar la situación de un niño. Han pasado dos años desde que dejo de venir y yo sigo hablando con él, tengo relación con la familia. En estos momentos sigo colaborando con la asociación ATFAL.

**¿Qué labor realiza ATFAL?**
En otros municipios no existe una asociación de este tipo pero aquí es un apoyo muy importante porque están, durante los dos meses, para todo lo que haga falta.

**¿Cómo animarías a la acogida?**
No supone un gran esfuerzo económico ya que no hay que pagar el viaje y sólo se gasta en la alimentación. La satisfacción y el orgullo personal de que estás haciendo algo bien son muy grandes. Estás ayudando a personas que viven una situación injusta y ves a un niño reírse con cosas sencillas porque no hay que complicarse el verano. Además, conoces gente, una realidad nueva, abres la mente, y creces bastante como persona.

## GETXO Y EL SAHARA



Desde 1994, el Ayuntamiento de Getxo está hermanado con la daira de Bir Ganduz, acuerdo tomado en el Pleno de 24 de junio de 1994, por unanimidad.
La plasmación del hermanamiento de Getxo con el Sahara se centra principalmente en la realización de tres programas:

- "Vacaciones en Paz". Acogida de menores saharauis durante el verano.
- "Caravana Solidaria con el Sahara" envió de alimentos básicos de primera necesidad a la población refugiada en los campamentos de Tindouf (Argelia).
- Centro de personas con discapacidad: Centros que en los Campamentos de Refugiados de Tindouf que trabajan con población que tiene diversidad funcional.



# OPORRAK BAKEAN

## UDA HONETAN HAR EZAZU SAHARAR UME BAT

Getxo
bizi ezazu
#GetxoBiziEzazu
Dohako alea
ZENBAKI BEREZIA
www.getxo.eus
getxoberri@getxo.eus
APIRILA 2016

Uda honetan hainbat saharar ume etorriko dira Getxora uda pasatzera. Gure helburua, saharar herriarekiko elkartasuna sustatzeaz gain, ume horiek udan basamortutik ateratzea da. Uztailean eta abuztuan beste kultura bat eta beste bizimodu bat ezagutzeko aukera emango diegu, beraien elikadura hobetuko dugu eta beraien osasun arazoak konpontzen saiatuko gara. Saharako ume hauek etxean hartzen dituzten familia getxotarrak behar ditugu.

**Getxo Pro Sahara ATFAL**
Atfal 1997an sortu zen, saharar herriari laguntzeko Getxoko elkarte gisa. Urtean zehar zenbait jarduera antolatu ziren, saharar herriaren arazoen berri emateko. Garrantzitsuenetako bat udan umeak hartzea izan zen. Udalak eta elkarteak, hitzarmen baten bitartez, udan saharar adingabekoak hartzeko hitzarmena daukate.10 eta 12 urte arteko ume sahararrak dira.

**Egitarauaren helburuak**
- Saharar adingabekoen oinarrizko beharrizanak asetzea hilabete hauetan.
- Azterketa mediko orokorra, begietakoa eta hortzetakoa ahalbidetzea.
- Beren bizilekuko klima gogorra pairatzea ekiditea, tenperaturak 55ºCra iritsi ahal direlako.
- Trukaketa kulturala.
- Getxotarren artean Saharako herriak bizi duen egoeraz sentsibilitatea sortzea.

**Ezaugarriak**
- Saharako umeak familietan integratzen dira eta apurka-apurka beraien bizimoduetara ohitzen dira.
- Udan zehar zenbait jarduera egiten dituzte: txangoak, zaldi gainean ibiltzea, Sahararen eguna Algortako jaietan, herri-bazkariarekin, eta abar. Jarduera horietan Saharako umeek eta beraiek hartzen dituzten familiek parte hartu ahal dute.
- Aldian behin topaketak egiten dira, familiak modu boluntarioan etor daitezen eta elkartearekin eta gainerako familiekin iritziak trukatzeko.
- Begirale bat dago, edozer gauza gertatuz gero familiek berarengana jo dezaten.
- Saharar umeei eta beraiek hartzen dituzten familiei Getxo Kirolakeko txartela emango zaie harrera hilabeteetan, instalazioak erabili ahal izateko, baldin eta familiak Getxo Kirolakeko bazkide ez badira.

**KONTAKTUA**
- Getxo Pro Sahara Atfal. 658.751.359 / atfalgetxo@gmail.com
- Getxoko Udala. Lankidetza. 94.466.00.17 / lankidetza@getxo.eus

## DESKRIBAPENA

Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomoa da, 266.000 km²ko azalerarekin (Iberiar penintsularen erdia, ia-ia). Afrika iparraldean dago, eta Ozeano Atlantikoa, Maroko, Mauritania eta Aljeria ditu mugakide.
Klima gehienbat basamortukoa da. Zati bat *erg* da (hareazkoa) eta bestea *hamada* (harrizkoa). Lurralde honek baliabide natural garrantzitsuak dauzka, adibidez fosfatoen eta beste mea batzuen meatzeak, eta munduko arrantza-erreserbarik handienetako bat dauka.
IX. mendetik gaur arte saharaui herria bizi izan da bertan. Sahararrak nomadak dira, eta afrikar esklaboen, arabiar beduinoen eta bereberren ondorengoak dira. Gehienak erlijioz islamdarrak dira (suniak) eta *hassaniaz* mintzo dira (arabieraren dialekto bat), baina frantsesez eta gaztelaniaz ere egiten dute, herrialde horien kolonia izan ziren garaiko arrastoa.

## HISTORIA

| | |
|---|---|
| 1886 | Espainiak lurraldea kolonizatzeko prozesuari ekin zion. |
| 1934 | Espainiak Saguia al-Hamra eta Urrezko Ibaiaren arteko lurraldea kontrolatzen du. |
| 1958 | Mendebaldeko Sahara Espainiar estatuko beste probintzia bat da, eta bertako biztanleei NAN ematen zaie. |
| 1960 | Nazio Batuek Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomoen zerrendan sartu zuten, eta deskolonizazio prozesua hasi zuten. |
| 1967 | Nazio Batuek lurraldea deskolonizatzea gomendatu zuten. |
| 1973 | Fronte Polisarioa jaio zen: Saharako askapen nazionaleko mugimendua. |
| 1974 | Erregimen frankistak autodeterminazio erreferenduma iragarri zuen. |
| 1975 | Justiziako Nazioarteko Auzitegiak (NBE) ez zuen loturarik aurkitu Mendebaldeko Sahararen eta Marokoren edo Mauritaniaren artean. |
| | Marokok okupazio militarra hasi zuen eta "Ibilaldi Berdeari" ekin zion (sahararrek ibilaldi beltza esan ziotena). Horrela, 300.000 marokoar inguruk muga zeharkatu zuten. |
| | Saharaui asko Aljeriaraino iritsi ziren eta errefuxiatuen kanpalekuak eraiki zituzten (Tinduf), beldurraren, behartutako desagerpenen eta bonbardaketen artetik ihesi. |
| | Mauritaniak Mendebaldeko Sahararen hegoaldea okupatu zuen. |
| 1976 | Espainiak Mendebaldeko Sahara utzi zuen, hiru aldeko akordioak deitu zitzaienak sinatuz. Akordio horiei nazioarteko erakundeek ez diete legezko baliorik ematen; beraien bidez, Espainiak lurralde hau Marokori eta Mauritaniari eman zien. Horrela, Espainiak bere betebeharrak baztertu eta saharar herria abandonatu zuen. |
| 1979 | Mauritaniak gerra utzi zuen eta bakea sinatu zuen Fronte Polisarioarekin. |
| 1982 | Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa Afrikar Batasunerako Erakundean onartu zuten. |
| 1987 | Marokok 2.500 kilometro baino gehiagoko harresia eraiki zuen, lurraldea bitan zatitzeko. |
| 1991 | Su-eten akordioa Marokoren eta Polisarioaren artean. Akordio honetan Nazio Batuen misio bat egotea sartzen zen (MINURSO), lurraldearen estatusa erabakitzeko autodeterminazio erreferenduma egiteko betekizuna zeukana. |
| 1992/ 1999/ 2000/ 2003 | Nazio Batuen ebazpenak, erreferenduma egitearen eta sahararren borondatea errespetatzearen aldekoak. Zenbait ekimen egin ziren (zentsu berriak, Baker I eta II planak, Ross plana, ...), egoera desblokeatu nahiaz, akordio berrien bidez. Marokok guztiak errefusatu zituen. |
| 2005/ 2010 | Saharar protesta baketsuen mugimendu handia sortu zen, bortizki zapalduak izan zirenak. Gertakari haiek "arabiar udaberriko" jazoeren inspirazio izan ziren. Bereziki aipagarria da Gdem Izik-eko protesta. |
| 2015 | Uholdeak Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan, kalte asko egin zituztenak: 90.000 pertsona kalteturik. Haietatik 25.000k etxeak galdu zituzten eta jatekorik gabe geratu ziren. |
| 2016 | Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren deklarazioaren 40. urteurrena. |

## ENTREVISTA



### Mireia Moral, harrera-ama zazpi urtetan

# "Poztasun handia da bidegabeko egoera bizi duten pertsonei laguntzea"

**Mireia Moral, Perun lankide boluntarioaren esperientzia bizi ondoren, 23 urte zituela, Saharako errealitatearen eta ATFAL elkartearen berri izan zuen eta haurrak hartzeko programan parte hartzea erabaki zuen, saharar herriarekin kolaboratzeko. Lehenengo urteotan hartutako umea familiaren (bete betean inplikatua) etxean bizi izan zen eta azken urteotan bere bikotearekin partekatutako etxean. Matfud Getxora 7 urterekin hasi zen etortzen eta hainbat uda eman zuen berton.**

**Seme-alaba txikiak zenituzten?**
Ez, baina hori ez da garrantzitsua, oso argi genuelako haurrentzako planak egin behar genituela eta horretan elkarteak asko laguntzen du antolatzen dituen jarduerekin. Horiek ume sahararrentzat eta nahi duten getxotarrentzat izaten dira.

**Zein egoeratan daude haur sahararrak Getxora etortzen direnean?**
Neska eta mutil osasuntsuak dira. Heldutakoan osasun kontrolak egiten dizkiete, Osakidetzarekin dauden hitzarmen batzuei esker, laguntzaren bat behar badute ikusteko.

**Nolakoa izaten da egunerokoa?**
Heldu zenean nireak ez zekien gaztelera, ez zuen txorrotako ura ezagutzen ezta guretzat oso oinarrizkoak diren gauza asko ere. ATFAL elkartea oso garrantzitsua da jarduera asko antolatzen dituelako begiraleekin. Horietariko batzuk sahararrak dira eta hori oso garrantzitsua izaten da lehendabiziko aldiz etortzen direnentzat. Jarduerak doakoak dira (hainbat entitaterekin dauden hitzarmenei eta laguntzei esker) bai sahararrentzat zein familia getxotarren umeentzat. Gainera, beste familiekin plan ugari egiten dira, esate baterako, Fadurako igerilekura, mendira edo surf egitera joatea..

**Harrera egin duzun zazpi urteetan zer izan da zailena?**
Oso ondo hezitutako haurrak dira. Agian zailena, baina aldi berean politena, lehenengo uda izan zen, nik bera ondo egotea nahi nuelako, eta berak hizkuntza ezagutzen ez zuenez, nik ez nekien ea ondo ulertzen zuen ala ez. Keinuen bidez konpondu ginen eta saharar begiralearen laguntza ezinbestekoa izan zen.

**Eta hoberena zazpi urte horietan?**
Familia bati laguntzen ari nintzaion poztasuna. Berton umeari laguntzen diozu, baina aldi berean familiari ere, beraiek dakitelako beren semeak edo alabak bi hilabete emango dituela desertuko errefuxiatuen kanpamenduen baldintza gogorretatik urrun. Niretzat oso pozgarria izan zen haurra zoriontsu ikustea.

**Eta harremana?**
Oso harreman estuak sortzen dira baina argi eduki behar dugu kausa bat laguntzen ari garela eta hurrengo urtean beste ume bat baldin badator, ez dela ezer gertatzen. Nire kasuan, berbera etorri zen beti, 14 urte bete arte, bere egoera familiar bereziagatik. Hasieran, harrera urte baterako izan behar zen, baina hain aberasgarria izan zen hurrengo urtean ez nuela zalantzarik izan. Orain bera ez datorrela, ea pena ematen didan galdetzen didate eta noski ematen didala!, baina argi eduki behar dugu, laguntzeagatik sentitzen dugun poztasuna ondoren ez ikusteagatik sentitzen dugun pena baino handiagoa izan behar dela. Noski ematen zidala pena agur esan nion bakoitzean, baina berak bere familia du. Harrera ama nintzela eduki nuen argi beti, ume baten egoera hobetzera bi hilabeteotan laguntzen zuena. Etortzeari utzi zionetik bi urte igaro dira eta nik berarekin hitz egiten segitzen dut, eta familiarekin harremana ere dut. ATFAL elkartearekin ere kolaboratzen jarraitzen dut.

**Zein lan egiten du ATFALek?**
Beste udalerritan ez dago mota honetako elkarterik, baina Getxon oso laguntza garrantzitsua da, bi hilabeteotan behar diren gauza guztietarako baitago.

**Nola animatuko zenuke jendea harrera-programan parte hartzera?**
Ez du esfortzu ekonomiko handirik suposatzen, ez baita bidaia ordaindu behar eta elikatzean baino ez da gastatu behar. Zerbait ona egiteagatik sentitzen duzun harrotasuna eta poztasuna oso handiak dira. Bidegabeko egoera bizi diren pertsona batzuei laguntzen ari zara eta gainera ume bat gauza xumeekin pozik ikusten duzu, uda ez baita konplikatu behar. Eta jendea eta errealitate berria ezagutzen dituzu, burua ireki eta pertsona bezala hazi ere egiten zara…

## GETXO ETA SAHARA



1994. urteaz geroztik Getxoko Udala Bir Ganduz dairarekin senidetuta dago, 1994ko ekainaren 24ko osoko bilkuran aho batez hartu zen erabakiaren ondorioz.
Getxo eta Sahararen arteko senidetasuna batez ere hiru programatan gauzatzen da:

- "Oporrak bakean". Adingabeko sahararrak hartzea udan.
- "Elkartasun karabana Sahararekin". Oinarrizko elikagaien bidalketa Aljeriako Tindufeko kanpalekuetan errefuxiatuta bizi diren pertsonei.
- Ezindutako pertsonen zentroa: Tindufeko Errefuxiatuen Kanpalekuetan dibertsitate funtzionala daukaten pertsonekin lan egiten duten zentroak.